

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2017. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2016(e)ko azaroaren 8(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko martxoaren 7koa, Gipuzkoako toki entitateek 2017ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko aplikatu beharreko jarraibidea aldatzen duena.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. IKAZTEGIETA
- 2.
- 3.
- 4.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2017. urtean:

Superabita: 86.573,33

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2017. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2017-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izan da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %47,14

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzeak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2017. urterako ezarritako helburua zor bizia %77 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2017. urterako helburua.

Gastuaren araua

2017. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria: 480.175,29

Gastuaren muga: 440.818,14

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2017	2016
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	562.754,43	498.775,66
Zorraren interesak	10,00	0,00
SEC doikuntzak	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua	82.569,14	67.024,30
Gastu konputagarria	480.175,29	431.751,36
Gastuaren hazkundearen muga:	%2,10	
Araudiaren aldaketan eragina:	0,00	
Gastuaren muga	440.818,14	

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2017. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago, berez, plan ekonomikoa finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Beraz1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu-hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

**Ikaztegietan 2018ko martxoaren 5ean
Idazkari Kontu-hartzailea**

Sin.:



